

## Hemen natza ortzirik. Joan Amenduzekoaren epitafioa (c. 1568). Edizio kritikoa

JABIER SAINZ PEZONAGA\*

**RESUMEN**  
**LABURPENA**  
**ABSTRACT**

Juan de Amendux (Pamplona, 1540-1580) fue completamente desconocido para la literatura vasca hasta 1963. Ese año, el historiador y archivero José Goñi Gaztanbide descubrió entre viejos papeles el poema de Amendux en el Archivo General de Navarra. Le habló del poema a Jose Maria Satrustegi, y éste lo transcribió y lo presentó en la revista BASP. Después, varios investigadores han tratado y analizado la vida y el citado poema de Juan de Amendux. En esta ocasión, se presenta la edición crítica del poema.

*Joan Amenduzekoa (Iruñea, 1540-1580) euskal literaturarentzat guztiz ezezaguna izan zen 1963 arte. Urte hartan, Jose Goñi Gaztanbide historialari eta artxibozainak haren poema aurkitu zuen Nafarroako Artxibo Nagusiaren paper zaharren artean. Poemaren berri Jose Maria Satrustegiri jakinarazi zion eta hark transkribatu eta BASP aldizkarian aurkeztu zuen. Ondoren zenbait ikerlaririk jorratu eta aztertu dute Joan Amenduzekoaren bizitza eta haren poema bera. Oraingo honetan poemaren edizio kritikoa aurkezten da.*

Juan de Amendux (Pamplona, 1540-1580) was virtually unknown to Basque literature before 1963. That year, amongst old papers, historian and archivist José Goñi Gaztanbide discovered the Amendux poem in the General Archive of Navarra. He spoke of the poem to Jose Maria Satrustegi, who transcribed it and presented it to the journal BASP for publication. Several researchers have since studied the life of Juan de Amendux and this particular poem. This is the critical edition of the poem.

**PALABRAS CLAVE**  
**HITZ GARRANTZITSUAK**  
**KEY WORDS**

Euskera, creación poética, Navarra, siglo XVI, Joan Amenduzekoa, Juan de Amendux.

*Euskara, poemagintza, Nafarroa, XVI. mendea, Joan Amenduzekoa, Juan de Amendux.*

Euskera, poetic creation, Navarra, 16th century, Joan Amenduzekoa, Juan de Amendux.

\* “Sancho el Sabio Fundazioa” VIII. Uribertsitate Mailako ikerketa Lehiaketaren irabazlea (2005)

Gure artean guztiz arrunta da, behar bada arruntena, testu baten edizio kritikoa egiteko *codex unicus* delakoa erabili beharra, hau da, lekukotasun bakarreko testua landu beharra. Lan honetan ikertu nahi dugun testua José Goñi Gaztambidek aurkitu zuen Nafarroako Artxibategi Nagusian eta Jose Maria Satrustegik eman zuen ezagutzera 1963. urtean. Hona hemen nola deskribatzen duen José María Jimeno Juriok testuaren euskarri fisikoa: “En el Archivo General de Navarra, sección “Procesos del Consejo Real del reino” se guarda un voluminoso documento de 605 folios en mal estado de conservación, catalogado con el núm 14.852. Durante cuatro siglos tuvo incorporado un pequeño cuaderno de hojas de papel y cubierta de pergamino. Perteneció a mase Miguel de Amendux. Actualmente ha sido extraído, restaurado, paginado y provisto de cubiertas nuevas. Se halla en el AGN: *Sec. Códices varios, L.4*. Contiene notas escolares de un cirujano, datos de contabilidad personal (curas realizadas, préstamos, ventas), páginas en blanco y una composición poética en euskera...” (1).

Kaiera horretan, idazkera aztertuz gero, hiru orrialdetan, 26r, 62r eta 74r zenbakidunetan, aurkitzen ditugu Joan Amenduzekoaren aztarnak. 74r orrialdean zenbait sinadura entsegu daude eta haiengatik ezagutzen dugu autorearen izena, Juan de Amendux. Erdarazko testu bat ere badago hor: “Vm Ducados / y medio / que de<...> señor”. 62r orrialdean zenbait izen daude, baina hor ez dira sinadurak. Goian, ezkerrean, “Ju<sup>o</sup> nabarro”. Beheraxeago “Don Juan de Mendoça vezino de (ezabatua)”, gero “vna horra”, zirriborro batzuk, “vez de medinaciel” eta “Ju<sup>o</sup> de mendoca”; honekin tartekatua eta nahasian zenbait “Juan de” eta “Ju<sup>o</sup>” (*Juanen* laburdura). 26r orrialdean testu bat erderaz dago buruan: “A beynte y nuebe de nobienbre de mil y qui / tos y sesenta y quatro y quatro en senial que / que son sesenta y ocho mandaba El reyno / que nenguno fuese ohsado de llebar Estorbo En / las manos porque sabiendo que no / se p”. Jarraian marra batek banantzen du orrialdea eta behean euskarazko olerkia ageri da. Testu hori da, beraz, gure lekukotasun bakarra. Jose Maria Satrustegik 1963an argitaratu zuen lehen aldiz, esan dugunez, fotografia batekin batera. Handik hona zenbait ikertzaile arduratu dira olerki horren irakurketaz eta interpretazioaz. *Recensiorako* honako lan hauek ikusi ditut nahitaezkoak:

Satrustegi, 1963: Satrustegui, José María, “Hallazgo de una elegía vasca del año 1564”, *BAP*, 19, 63-85. (Artikulu honen azken orrialdean Aingeru Irigarayren ohar labor bat dator).

Irigaray, 1963: Irigaray, Angel, “Sobre la elegía vasca de 1564”, *BAP*, 19, 217-219.

Mitxelena, 1964: Michelena, Luis, “Elegía de Juan de Amendux (1564)”, in *Textos arcaicos vascos*, 107-110, Madrid, Minotauro.

Irigaray, 1974: Irigaray, Angel, “Una elegía euskérica del siglo XVI”, in A. Apat-Echebarne, *Una geografía diacrónica del euskara en Navarra*, 107-108, Pamplona, Ediciones y Libros.

Satrustegi, 1975: Satrustegui, José María, “La elegía vasca de Juan de Amendux (1564)”, *FLV*, 7:19, 75-85.

Salaberri, 1996: Salaberri, Patxi, “Amenduxen olerkiaz. Oharrak”, *FLV*, 28:71, 87-97.

Aipamen gehiago izan dira, baina lan hauek izan dira testua ikertu dutenak, besteek dibulgazio lana besterik ez eginik. Behar-beharrezkoa da, baita ere, jadanik aipatu dugun Jose Maria Jimeno Juriok prestatuturiko lana non Amenduzekoaren biografia eskaintzen digun:

Jimeno Jurio, 1996: Jimeno Jurío, José María, “Juan de Amendux, poeta euskaldun de Pamplona (c. 1540-1580)”, *FLV*, 28:71, 99-117.

Satrustegik zenbait datu biografiko eman zizkigun, baina Jimeno Jurio izan da maisuki erakutsi diguna Joan Amenduzekoaren bizitzaren nondik norakoa.

## NOR ZEN GURE AUTOREA?.

Gure autorea izendatzerakoan ikertzaile gehienek *Juan de Amendux* erdarazko erara izendatu dute. Horrela ageri da gainera kaieran, sinaduraz edo sinadura gaiz betetako orrialdean. Patxi Salaberrik, bestalde, *Juanes Amendux* izendatzen du. Jimeno Juriok gure autorearen ponte izen batzuk ematen ditu argitara, edo hobe esanda, hainbat dokumentutan agertutako ponte izenaren aldaera desberdinak: “Su nombre no se cita antes de 1547. Este año su padre le llama en el testamento Juanisco o Juanis. Normalmente figura como Joan, Juan o Juanes de Amendux” (2). *Joan* da dirudienetz aldaera erabiliena. Preso zegoenean “*Joan de Amendux preso en vuestras carseles reales...*” hitzekin hasten zituen Erregeari bidalitako eskaintzak. Deitura aitarena bera da eta erakusten du etorkia, Nafarroa Behereko Amenduze edo *Amendueix* udalerrria. Nik euskal erara jarriko dut gure autorearen izena, Joan Amenduzekoa edo Joan Amenduze, garaikide zuen Bernat Etxeparek berak euskaraz bere burua izendatzeko erabili zuen moduan.

Jimeno Juriok eskaintzen dizkigun Amenduzeren berriak laburbilduz, esan dezagun Iruñean jaio zela 1540. urtearen inguruan, haren gurasoak Miguel de Amendux eta Mari Miguel de Garro izanik. Aita zirujaua zen, mendearen lehen hereneko urteetan Iruñean finkatua.

(2) Jimeno Jurio, 1996, 106.

Ongi zihoakion aitari zirujau lana eta, gainera, salerosketa negoziotan arduratu zen eta etekin onak atera zituen. Ondorioz, bizimodu eroso ezagutu zuen Joaniskok haurtzaroan. Baina sei urte zituelarik aita hil zen eta hurrengo urtean ama. Lehen mementoan bere aitoren zaintzapean geratu zen, baina gero bere lehengusu Juan de Oses izan zuen tutore. Hura zirujaua zen Baltierran, eta umezurtza hara joan zen bizitzera. Tuteran ikasi zuen idazten, irakurtzen eta kontuak egiten. Hamalau urterekin tutoreak Zaragozara bidali zuen ofizio bat ikas zezan, baina gaixotu eta Erriberara bueltatu zen. Geroago zenbait bidai egin zituen, eta azkenean Iruñean finkatu zen. Mertzeria bat irekitzeko asmotan, mailegu bat hartu zuen eta, dirua itzuli ez zuenez, maileguaren bermatzaile zen haren osaba Antonio de Garrok eskatuta, kartzelaratu egin zuten 1567ko otsailetik irailera tarteko hilabeteetan. Tafallan eta Iruñean egon zen preso, Jimeno Juriok azaltzen duen egoera txarretan. Handik aterata, auzia jarri zuen bere tutore eta bere herentziaren administratzaileen kontra, bere ahaide eta “adiskide”en kontra. Prozesuak hamar urtez iraun zuen, 1580ko hasierako egunak arte. Joan Amenduzekoa urte bereko otsailaren 12an hil zen, 40 urte guti goiti-beheiti zituelarik.

Amenduzeren bizitzaren bi zirkunstantzia izan dira gehien aipatutakoak. Alde batetik, haren familiak eta inguruko jendeak Iparraldeko lurrekin zuten lotura zuzena. Bai Jimeno Juriok bai Salaberrik zirkunstantzia hori luze eta zabal azaltzen dute, *Amendux, Garro, Jaso, Oregar, Oses, Mongelos*, eta abarreko deiturak esplikatuz. Salaberriren hitzetan “honek guztiak iruindar gazteak etxean mendiez haraindiko euskara adituko zuela pentsarazten digu, seguru aski karrikako hegoaldeko goi nafarrerarekin batera” (3). Bigarren zirkunstantzia berezia eta deigarria Erriberarekin izan zuen harremana da, zeren gaztaroaren urte nahikotxo pasatu baitzuen Baltierran eta Tuteran, eta ama hizkuntza, euskara, mantendu baitzuen. Jimeno Juriok Amenduzeren bizitzaro horretan Juan de Oses pertsonaiak izan zuen garrantzia azpimarratzen du: “Influyó decisivamente en la vida de nuestro biografiado. Aunque vecino y residente en la villa ribereña, debía de ser uno de los muchos euskaldunes afincados en esas tierras. Tal circunstancia explicaría que su pupilo mantuviera la lengua materna durante esos años” (4).

Amenduzek bere ama hizkuntza Erriberan mantentzeak, Osestarrek etxe barruan euskara zutela mintzaira adierazteaz gainera, kalean ere erabilia zela pentsatzera garamatza. Historiagile batzuek eman dute aditzera zer-nolako garrantzia izan zuen Iparraldetik Erriberarainoko migrazioa XVI. eta XVII. mendeetan. Orta Rubiok (5) eta Peio J.

(3) Salaberry, 1996, 95.

(4) Jimeno Jurio, 1996, 105.

(5) E. Orta Rubio, “La Ribera Tudelana bajo los Austrias. Aproximación a su estudio socio-económico”, PV, 166/167, 834-836.

Monteanok (6) esaten digutenaren arabera, pentsa dezakegu populazioaren ehuneko 10a zela euskaldun Tuteran, eta multzo handia baina zehaztugabea, beharbada hortik ez oso urrun, beste herrietan. Gaurko migrazioaren taldeek beren hizkuntzetan nola egiten duten berba ikusita, asma dezakegu mende haietan euskara barra-barra entzuten zela Erriberako karrketan. Gainera badago desberdintasun bat, nabarmentzekoa: etorkin haiek nafarrak ziren, eta ez maila apalekoak. Batzuk edo asko artzain ibiliko ziren Erriberako lautadetan, baina askok ere ofizio eta kargu garrantzizkoak bete zituzten. Aipatzen ari garen Juan de Oses (*Joan de Osses* zenbait dokumentutan) adibidez, zirujaua zen, eta 1577ko dokumentuetan alkate ageri da (7). Hara non, nahiz dokumentu zuzenik ez izan, zilegi zaigun esatea XVI. mendeko Baltierrako alkate euskaldun baten izena ezaguna dugula.

Zein euskalkitan hitz egiten zuen Joan Amenduzekoak Erriberan? Zaila izango da erantzutea, baina nik esango nuke haren mintzaira Iparraldeko ezaugarri asko edukiko zuela seguru aski. Iruñean egiten zenaren oso diferentea? Ez dut uste. Euskalkiei buruz ezagutzen dugun lehen berria Oihenartek 1637. urtean ematen diguna da: “Caeterum in superioribus, declinationum et inflexionum regulis atque exemplis dialectum fere Vascitanam secuti sumus, eam in quam quae illorum e Vasconibus Aquitanis, qui Vasci vulgo dicuntur, propria est. Ab hac nonnihil differt Navarrica, plusculum Vardulica, seu Ipuscuana et Alavensis, omnium maxime Autrigonica seu Biscaina, quas hic sigillatim exponere, aut inter se conferre non est nostri instituti” (8). Hau da: “Halarik ere, arestian emandako deklinabide eta flexioen erregeletan nahiz adibideetan ia soilik Iparraldeko euskalkia erabili dugu, hau da, Akitaniako Baskoiei, arrontki Vascoak deituak direnei dagokiena. Honetatik zerbait ezberdintzen da nafarrera eta

(6) Peio J. Monteano, “Iparraldeko nafarrak Tuteran, XVI mendean” *Euskera*, 2002, 47:2, 905-908.

(7) 1553. urtean, “Juan de Osses vezino de Baltierra y natural de esta ciudad dijo era descendiente de la casa de Vidarte de la tierra de Osses en la Vaxa Navarra que era solar de nobleza y le correspondía la misma esempcion lo que se mandó así”. 1577. urtean, “Joan de Oses alcalde de la dicha villa por su magestad...” Dokumentu berean ageri diren beste jende izen batzuk: Joan de Leçaca, Joan de Agerre, Fco de Baigorri, Joan Abarca, Pedro de Arbizu, Salvador de Arraiz, Miguel de Aybar, Joan Zapata, Miguel de Añorbe, Juan de Ororbia, Joan de Echague, Pedro de Atondo,... Dokumentu hauen iturria: Félix Zapatero Pérez, 1972 [1935], *Monografía de la Villa de Valtierra*, Aranzadi argit., Iruñea. 90-118.

(8) Oihenart, *Notitia*, 1656, 72r. 1992an Eusko Jaurlaritzak apailatutako edizioan Javier Gorosterratzuren itzulpena ageri da errorez beteta. Pasarte hau gaizki itzulita dago: “Por lo demás, en las reglas anteriores y en los ejemplos de las declinaciones y conjugaciones, hemos seguido casi únicamente el dialecto de la Vascitania, es decir, el usado por los vascos aquitanos, vulgarmente denominados los vascos en la actualidad. La forma navarra **diffiere no poco** de ésta, más la de la Vardulia, o sea de Gipuzcoa y Alava, más que ninguna la autrigónica, o bizcaína, cuya exposición y mutua comparación e particular no es objeto de nuestro trabajo actual” (*letra lodiak nireak dira*). “Difiere no poco”ren ordez, “difiere un poco” jarri behar zuen.

gehixego erdialdeko euskalkia, Gipuzkoan eta Araban egiten dena, eta gehien aldentzen dena bizkaiera da, baina ez da gure eginkizuna euskalkiak aztertu edo haien arteko ezberdintasunak azaldu” (gaurkotu egin ditut euskalkien izenak). Beraz, Oihenartek desberdintzen du, bai, Iparraldeko euskalkia eta nafarrera, geroago goi nafarrera izenaz ezagutua izango zena, baina euskalkien artean horiexek dira haren aburuz gutxien desberdintzen direnak. Dena dela, nik suposatzen dut mende haietako Erriberako euskaldun asko jatorriz Iparraldekoak izanik, nabariak izango zirela Erriberan Iparraldeko hizkeraren zenbait ezaugarri.

Baina hori guztia esan eta gero, benetan interesatzen zaigun aferara heltzen gara. Zein euskalkitan idatzi zuen Joan Amenduzekoak bere olerkia? Salaberriren lana agertu arte inork ez zuen ezbaian ipini goi nafarreraz zegoela idatzia Amenduzeren testua. Salaberrik zer bait aldatu zuen ikuspegi hori “Iparraldeko euskalkietakotzat jo daitezkeen elementuak” notaturik. Ni Salaberrik esandakoarekin bat nator, baina nire hipotesia pixka bat haratago doa. Nire ustez ez da zuzena Amenduzeren olerkia goi nafarrerazko testua izango balitz bezala aurkeztea (*OEHn* egiten den bezala). Nik, hizkuntza aldetik, Amenduzeren lekukotasuna nafar-lapurtar klasikoen artean kokatuko nuke, Etxepareren, Leizarragaren, Axularren edo Oihenarten alboan. Olerkia aztertzean ikusiko da zertan oinarritzen dudana neure iritzia.

Noiz eta non idatzia zen ere eztabaidagarria da. Satrustegik 1564. urtean datatu zuen eta datazio hori errepikatu dute Jimeno Jurioren lana agertu arte, zeren, horren aburuz, argi baitago Amenduzek preso zegoenean idatzi zuela olerkia, presoaldiaren lehen hilabetee-tan, 1567ko udaberrian, hain zuzen, Tafallan. Esan behar da hori Jimeno Jurioren intuizioa dela, baina ez dagoela frogaturik. Datazioa ematerakoan Satrustegik olerkia ageri den orrialdeko goi partean aurkitzen dugun erdarazko testuari jarraitu zion. Han “mil y qui[nien]tos y sesenta y quatro” irakurri zuen, eta gutxienez urte hartan finkatu zuen olerkiaren data izan zitekeena. Baina testu hartan benetan ageri dena honako hau da: “mil y qui[nien]tos y sesenta y quatro y quatro en señal que son sesenta y ocho”. Zer esan nahi du horrek? Pentsa dezakegu nahaste bat izan zuela Amenduzek eta, okerra zuzentzeko asmoz, esaldi hori bururatu zitzaioela. Han ageri den egiazko data 1568 izango litzateke hipotesi honetan (historiagileek baieztatu edo ezeztatu ahalko duten hori, baldin han aipatutako debekua edo legea aurkitzen edo zehazten badute). Satrustegiren hipotesiak ahuldura nabaria du: ez du ematen Amenduzek kartzelan izan baino hiru urte lehenago taxutuko zuenik olerkia. Kartzelaldia *beharrezkoa* da olerkia ulertzeko, hau da, pentsatzekoa da egoera horrek haustura sakona eragin ziola gure autoreari, olerkian zioena esatera eraman zuena. Satrustegik berak kartzelako egoera ekartzen digu gogora: “Por Septiembre de 1567 dice que ya son ocho los meses que lleva de prisión. Y ya estamos dentro del marco general en que surgieron los ver-

sos. Escribía por entonces a su procurador, y éste redactó la queja en los siguientes términos: ‘y además de la costa que tiene en la cárcel padece mucha hambre y necesidad y dolencias en su persona’”.

Jimeno Jurioren hipotesia ezeztatuko luke nireak, zeren kartzelaldia 1567an gertatu zen. Nik, egia esan, ez dut uste kartzelan idatzi zuela Amenduzek bere olerkia, ez dut ikusten “que fue una carcel es evidente (el lugar donde Amendux escribió su elegía) (9). Jimeno Juriok azpimarratzen du bat datozela olerkian adierazten diren sentimenduak eta kartzelatik bere eskaintzetan adierazten direnak, non “se muestra defraudado, amargado por la conducta de su tío Antonio, por quien se ve entre rejas” (10). Baina sentimendu horiek ez ziren une batekoak, baizik hamahiru urtez iraun zuen prozesu latz eta mingarri bati lotuak. Horregatik, edozein mementotan idatz zezakeen olerkia kartzelako egoera buruan izanik. Gehiago esango nuke, olerkian esaten denak denbora luzez agitutako sufrimendua adierazten du. Gainera, hemen ez dago kartzelako metaforarik. Olerki hau epitafio bat da (11), non poetak bere burua hila ikusten duen, eta bere bizitza eta bere sentimenduak adierazteko hiltzeko unean esan dezakeena irudikatzen duen. Litekeena da bere bizitzaren azken aroan Amenduzek halako sentsazio baten aurrean olerkia bururatzea. Kaiarako erdal testuan dataren ondoan lehenaldia erabiltzen du “mandaba el Reyno..”, baina nola ez dugun beste batere datu zehatzik, litekeena da baita ere 1568an idatzi izana. Ez dakigu noiz txertatu zen kaiera prozesuaren papertegian, eta hori datu polita izango litzateke. 1570. urtean sententzia bat eman zen Amenduzeren alde, baina prozesua hamar urtez luzatu zen... Nire ustez oraingoz esan dezakeguna hauxe da: Amenduzeren epitafioa 1568-1580 tartean idatzi zen, eta Iruñean.

## CONSTITUTIO TEXTUS

Behin *Recensioa* burututa, *constitutio textusa* egin behar dugu, eta honetan bi lan mota ditugu garrantzitsuenak: *Emendatio ope ingenii* delakoa, hots, hutsen zuzenketa eta *dispositio textus deritzona*, hitzen banaketa zuzendu eta grafia gaurkotzea, alegia.

Esan dudanez, eskuizkribu bat dugu, autografoa, egilearen eskuz idatzia. Zalantza bat geratuko zaigu konpondu ezinik, ea hau origina-

(9) Jimeno Jurio, 1996, 115.

(10) Ibid.

(11) Epitafioa poesiaren motibo bezala, hona hemen Oihenarteren olerkia, non ia-ia Amenduzeren lehen hitzak errepikatzen diren:

“XXIX Arrain jaun, Zuberoako Juje zenaren Ilhartitza

Arrain, gizonen haitia,

Temisen bihotz maitia,

Arrain, Museen haurr-hazia,

Haur non datzan ehortzia;

Haur du gorputzak hobia,

Zeru' arimak hobia”.

la den ala kopia autografoa. Zerbait bitxia gertatzen da testu honetan, non bertsoak eta lerroak ez datozen bat, lehenengo eta hirugarren bertsoak zatiturik agertzen zaizkigula. Zer pentsa eragiten du horrek, eta hipotesi moduan gure ediziorako, honako *stemma* hau ezarriko dugu:

A *stemma*

[Ω] Original ideala

Í

[O] Originala

Í

E Iruñeko eskuizkribua.

Hipotesi honek ez duke, agian, eragin handirik, baldin *O* desagertua bada eta aurrez aurre dugun lekukotasun bakarra Iruñeko testua bada. Azken finean gure helburua original ideala, W, berreraikitzea da, autoreak buruan izan zuena, haren borondatea islatzen duen testua. Zentzu horretan testu ideal bat da, nahiz hitzez osatua dagoen. Pentsa dezagun originaletan ere hutsak egon daitezkeela, egileek ere hutsak egiten dituztelako.

Geroago saiatuko naiz hipotesi honen baliagarritasuna bilatzen, baina momentuz beharrezkoa edo derrigorrezkoa ikusten dudana *stemma* azalduko dut.

B *stemma*

[Ω] Original ideala

Í

X Arketipoa

Í

E Iruñeko eskuizkribua.

Badakit nahasketa terminologikoa dagoela *arketipo* terminoaren inguruan, eta beharbada nire erabilera ez da izango zuzenena. Kasu honetan esan nahi dut bilatu behar dugula original idealetik hurbilen dagoen testua. Zeren Iruñeko lekukotasunean arazo bat baitugu: jatorrizko idazketaren gainean zenbait zuzenketa daude tartekatua. Zuzenketa horiek tinta ezberdinarekin eginak dira. Satrustegik, testua ezagutarazi zuenean horren berri eman zuen: “Más incómodo es el entorpecimiento que originan algunas correcciones. Pero tampoco es insuperable este contratiempo gracias al tono más intenso de tinta que permite diferenciar sobre el original los distintos trazos” (12). Satrustegi gaztea zen aro hartan eta, horregatik, ausarta bezain baikorra, zeren, egia esan, eragozpen handiak sortu baitituzte zuzenketa



izun horiek. Haren ustean, zuzenketen egilea ez zen euskalduna, eta hala dirudi, baina ez dago guztiz garbi. Zuzenketa nabarmenenaz gain, puntu asko gehitu zuen ezezagun horrek hainbat letraren gainean, *i* eta *e* letren irakurketa nahasten eta gaizkitzen batez ere. Hori irakurketa ezberdinen sorburua izan da. Batzuetan argi ikusten da, beltzago izanik, puntua sasikoa dela, baina beste batzuetan oso zaila da berezkoa den ala ez jakitea, hain entitate txikiko elementuak izaki. Badaude originalak diruditen bi zuzenketa ere, bukaerako *q* biren orde, *c* jarri zen. Aitzitik, *orciric* hitzaren *c* hautsiaren tileta izuna da. Gure helburua lortzeko, kutsadurarik gabeko arketipoa pentsatu behar dugu, sortu. Horretarako, Amenduzekoarenak ez bide diren gehiketa guztiak gure arketipotik at geratuko dira.

## IRAKURKETAREN ARAZOAK

Esan dugunez zenbaitetan *e* ala *i* irakurri behar den zaila da jakitea. Bi *e* mota dago testu honetan, *e* txikia eta *e* handia deutuko ditugunak. *E* handia bakarrik hitz hasieran agertzen da, bai eta *des Eginic* eratorpenean ere, zeina guk hitz batean idazten dugun, baina berak banandurik. *E* handi horrek ez du inolako arazorik sortzen, *e* txikiaren eta *i* letraren artean zenbaitetan agertzen den alde txikiak, aitzitik, bai. Formaz desberdinak dira eta *e* horien kurbadurak bestelakoak dira *i* zurrunagoen aldean, baina ez beti. Puntuaketa faltsuaren aferaz gain, argi dauden *i* batzuen gainean ez da agertzen tiletik. Nik, arazo hori konpontze aldera, puntu guztiak ezabatu ditut *e* eta *i* letrak haien forma tipilaz, soilaz ezagutzeko asmoz. Satrustegik ere aieru hori erabili zuen partzialki: “*adisquideac*. Preferimos a *adisquidiac*; el puntillo que aparece sobre la *i* es del tono intenso de las correcciones; y en cambio se apunta la corva de una *e*” (13). *E* txiki eta *i* gehienak bereiz daitezke eragiketa honekin, baina ez guztiak. Horregatik zenbaitetan irakurketa bikoitza aurkezten dut. Baina hondarreko kasu horiek ez dira garrantzizkoak eta ez dute eragozten testua zuzen ulertzea. Patxi Salaberrik ezbaian dirateke bi kasutan egilearen hutsak iritzi die ezohizko formei: “Bi bokal palatalen arteko nahasketak ere hustako jo ditzakegula uste dugu, eta beraz *belduRiqui* ‘beldurreki’ dukegu eta *yllunbitan* ‘illunbetan” (14).

Arazoak sortu ditu ere grafema berezi baten erabilerak, R moduan irudikatu dugunarenak. Grafema hori maiz agertzen da dokumentu zaharretan dardarkari anitza adierazteko, baina testu honetan bai dardarkari bakuna bai dardarkari anitzaren lekua betetzen du erregela edo eginbide barik.

Herskariak adieraztekoan ia erregulariki egin du Amenduzek. Belare ahoskabea honela:

(13) Satrustegi, 1963, 78.

(14) Salaberrri, 1996, 90. *BelduRiqui*-ren lehen *i* letraren gainean dagoen puntua berezkoa dela dirudi, baina *yllunbitan* hitzarena puntu beltz nabarmena da.

- qu- / \_e, \_i → k
- c- / \_a, \_o, \_u → k
- q → k
- c → k

Antza denez hitzaren bukaerarako dudak izan zituen eta bi aldiz zuzendu zuen idatzitakoa, *-q* baten gainean *-c* jarririk, baina hitz bat, *egociriq*, geratu zen zuzendu gabe.

Ahostunen kasua kurioso da zeren guztiz bat baitator gaurko grafia estandararekin: *ga, ge, gi, ge* eta *gu* ageri dira testuan, gaurko erara.

Txistukariak lan galanta ematen dute testu zaharretan, euskal fonetika arlo honetan oso bestelakoa delako alboko hizkuntzekin alderatuta. Ortografia finkaturik ez zegoenez, hainbat baliabidez baliatu ziren mende haietako idazle eta idazkariak txistukariak emateko, gehiengotan alboko erdarazko sistemak nola edo hala moldatuz. Gehitu behar zaio horri euskalkien arteko joera desberdina zenbait kasutan. Gainera testu honetan autorearen nahasketa propioa suertatzen da, zeren erdaraz, Jimeno Juriok notatu zuen bezala, *s* letra erabiltzen zuen *c* letraren ordez “con relativa frecuencia” (15), eta euskaraz *s* eta *z* ere nahasten ditu. Dena dela, Amenduzeren sistema ez da guztiz kaotikoa eta hurrengo tauletan adierazten dut nola ulertu eta gaurkotu dudana.

Bokalen artean:

-ç- / _a → tz naça		-s- / _a → z isanen	-s- / _a → s pasaturic	
-c- / _e → tz acenduric	-z- / _e → z plazerac	-s- / _e → z lusean		-s- / _e → ts asecabe
-c- / _i → tz ERiciric		-s- / --_i → z gusia	-s- / _i → s isusiRic	
-ç- / _o → tz yçoc	-z- / _o → z gozo			
-ç- / -_u → z duçuen				-s- / _u → ts isusiRic

Hitz hasieran:

ç- / \_a → z

Hitz bukaeran:

-s → z

Kontsonante aurrean: Gaurko ortografiarekin bat dator gehienbat: *adisquideac, asco, azqueno, noyzbait, uste...*, baina badaude salbuespenak: *doloresqui, estu, estudan*.

(15) Jimeno Jurio, 1996, 113. *Carseles, presio* ageri dira *cárcelesen* eta *precioren* ordez, orrialde honetan eta aurrekoan eskainitako Amenduzeren erdarazko aipuetan.

Eztabaidagarriak dira azken bi sailak, zeren hor zenbait adituk ikusi baitituzte euskalkiaren ezaugarriak, konkretuki goi nafarreraren ezaugarriak. Mitxelena-entzat (“sufijo -(e)s de instrumental, de forma típicamente alto-navarra”) (16) eta Salaberrirentzat (“Instrumentalaren marka orduko -s genuela bistakoa irudi du, eta hau ezin hartuko dugu idatzokertzat”) (17) argi dago dialektaltzat hartu behar dela kontu hori. Salaberrik ere *estu* ‘ez du’ eta *estudan* ‘ez dudán’ grafiak aipatzen ditu, nahiz hori ez dagoela zeharo garbi esan. “Juan de Beriainek eta Elkanoko Lizarragak eskuarki -zt- dute honelakoetan. Elizalde aldiz -st- du eta Muzkiko testuetan bi soluzioak opatzen ditugu. Euskalki berean idatzitako beste testu batzuetan -zt- edo -st- dugu, normalean ez biak testu berean” (18) zehazten du. Ni ez naiz nor maisuen esana ezbaian jartzeko, baina hemen uste dut aurreiritzi bat dagoela, testua goi nafarreraz idatzita dagoela, eta aurreiritzi hori ez dator bat dugun beste datuekin, Salaberrik, modu apalean bada ere, errekonozitzen duen bezala (19). Horregatik, nik pentsatzen dut zilegi dela autorearen *modus scribendiren* barruan azaltzea trukaketa horiek, eta aieru horren arabera -z- edo -z transkribatzea. Kontu horietan, Amenduze oso hurbil dago Oihenartek erabili zuen idaztankeratik, eta Oihenartenak ez dira euskalki kontuak. Dena dela, baliteke hemen ere gure autorearen mintzairan Iruñeko hizkerak izan bide zuen eragina agertzea.

Bokalen artekoen taulan -c- / \_e → tz jarri dut, eta argi dagoela dirudi *acenduric* kasuan, baina ez hainbeste *arrece* kasuan. Hor -arretze- ikusi beharko genuke, nire ustez -arretxe- esan nahi duen lekuan. *OEHn*, *etzeren* testigantzak aurki daitezke, oso urri izan badira ere, *etse* edo *etxe* aldaera normalagoen artean. Ikusi dugu Amenduzek afrikatuak idazteko zailtasunak izan zituela, eta horregatik pentsatzen dut *arretxe* ikusi behar dugula hor.

*H* batzuk ditugu testuan, baina ez da erraza horietarik ezaugarririk edo atzematea. Erdarazko testuan *haren* harrigarriko erabilera bat, *ohsado*, ikusten dugu. Euskal testuan hitz hasieran agertzen da bakarrik. *Honak* Iparraldeko tradizioarekin lot genezake beharbada, zeren idazkera horrek, *hon-*, tradizio luze eta sendoa du Iparraldeko autoreetan, baina haratago joatea ez dakit bidezkoa den. *Ho[n]rraren* kasuan *h* letra maileguarekin dator. *Haydeac* hitzaren *hak ahaideac* aldaera erakusten digu beharbada, Iparraldeko zenbait testutan gertatzen den

(16) Mitxelena, 1964, 108.

(17) Salaberri, 1996, 90.

(18) Salaberri, 1996, 88, 4. oharra.

(19) Salaberri, 1996, 94: “Hemen, dena den, kontuz ibili beharra dago, alegia, ez da erraza zer den ezaugarri dialektala eta zer den egilearen ezjankintasunak edo idazteko ohitura handirik ez izateak eragindako hutsa, zeren erran bezala, erdarazko testuan ere ugariak baitira z/s nahasketak”.

moduan. *U* bokalaren aurreko *hek* espainierazko grafiaren zordun dirudite (20).

*Emendatioa* bururatzeko kontuan hartuko ditut orain arte egindako testuaren irakurketa eta zuzenketak. Hona hemen erabilitako laburdurak:

E: Eskuizkribua  
S1: Satrustegui 1963  
I1: Irigaray 1963  
M: Mitxelena 1964  
I2: Irigaray 1974  
S2: Satrustegi 1975  
Sa: Salaberri 1996

Argitasunaren aldetik, bertsoz bertso ibiliko naiz Satrustegik estreinatu zuen tradizioari jarraiki. *Dispositio*rako egitura berbera erabiliko dut, zeren ez baitut uste eman diren bestelako aukerek, Irigaray-renak edo Salaberrirenak, ezer esanguratsurik ekartzen dutenik.

1.

E Hemen naca orçiric noyzbait Gozo ERiciric  
S1 Hemen naca orçiric, noyzbait gozo ericiric,  
I1 Hemen naça orçiric Noyzbait gozo ericiric,  
M Hemen naça orçiric, noyzbait gozo ericiric  
I2 Hemen naça orçiric noyzbait goço ericiric  
S2 Hemen naça orçiric / noyzbait gozo ericiric,  
Sa Hemen naça orçiric noyzbait Gozo ERiciric

Zuzenketa arrotzak kontuan harturik honela hasten zen olerkia:

*Noyzbait* hitza ere zuzenduta dagoela dirudi, eta beharbada *noyzbait* da lehendabiziko idazkera, baina ez dago argi. *Noizbat* aldaera

(20)U aurrean jartzen zen h horrek irakurketa bikoitza saihesten zuen. Adibidez, <ueso> kasuan, antzinako grafian bi irakurketa posible ziren, zeina konpontzen zen hueso idatzita.

Harrieten hiztegian (1814-1904) ageri da. Dena dela, *noizbat = noiz - bait*.

Hori kenduta, bertso honetan ez dago irakurketa arazorik. Jadanik Irigarayk Satrustegiren 1963ko artikulua hondarrean eginiko iruzkinean esaten zuen “*naca = naça*, falta la cedilla = *natza*, *yazgo*”. Salaberriren iritziz, berriz “Irigarayk ez zuen ongi irakurri, c-ren azpian, honen eta hurrengo a-ren artean, puntu bat behintzat ageri baita, zedilla osoaren arradizoa datekeena”. Baliteke Salaberriek arrazoa edukitzea, zeren egia baita puntu hori agertzen dela, baina ni Irigarayren esanera alboratzen naiz, egilearen laxotasun bat ikusirik. 62r orrialdean deskuidu bera ikusten da, *mendoçaren* ondoan *mendo - ca* idazten baitu. Aitzitik, bertsoaren zentzua bere osotasunean ulertua izan ez dela pentsatzen dut. Mitxelenak argi ikusi zituen testuaren eraketak sortutako zailtasunak: “La versión de estos versos se halla dificultada por el abuso que en ellos se hace de construcciones participiales, en las cuales no está siempre bien marcada la relación con elementos nominales, presentes o suplidos, de la frase”. Eta bertso honi buruz zuen iritzia hauxe da: “*Gozo ericiric (=eritzirik)* supone como su sinónimo *eder-etsi* ‘complacerse en algo’, ‘hallarse a gusto con algo’, un dativo: *biziari* ‘a la vida’, probablemente”, eta “...cuando en otro tiempo me complacía en la vida” itzultzen du. Salaberriek bertso bera eskaintzen du. Satrustegik “-al iluso de otro tiempo-“ ematen du 1963ean, eta “el que en otro tiempo me sintiera a gusto” 1975ean. Irigarayk “el que alguna vez fue feliz”. Nire ustez Mitxelenaren arrazoinamenduan hitz aldaketa bat egin behar dugu, *biziari* hitzaren lekuan *heriotzari* jarritz. Poetak, penaz eta sufrimenduz beteriko bizitza baten ondoren, aitortzen du bere bizitzaren zenbait une latzetan heriotzari gozo iritzi ziola, hau da, heriotza nahi izan zuela zenbait mementotan, edo bederen heriotzaren pentsamendua kontsolagarria gertatu zitzaioa. Esaldiaren garapena honela izango litzateke: “Hemen *natza* ehortzirik, (nik) (horri = ehortzirik izateari = hila izateari) *noizbait* gozo irizten niolarik”, eta itzulpena, guti goiti-beheiti, “aquí yazgo enterrado, lo cual alguna vez me pareció dulzura”.

2.

- E Erioac <h>uste gabe doloresqui EgociRiq
- S1 Erioac hustegabe dolorosqui egociriq
- I1 Erioac hustegabe Dolorosqui egociRiq.
- M Erioac hustegabe dolorosqui egociriq
- I2 Erioac hustegabe Dolorosqui egociriq.
- S2 Erioac huste gabe dolorosqui egociriq,
- Sa erioac huste gabe dolorosqui EgociRiq

Azaldut dut arestian bertso honetan agertzen den *h* letra nire ustez izuna dela, baina, hori horrela ez bada ere, bertsoaren interpretazioa ez da aldatzen. Antza denez *h* hori *v* baten gainean dago idatzia, balio bokalikokoa, nonbait, idazketa hustzat har genezakeena. *Dolorosqui* irakurri da orain arte, baina hor beste irakurketa posible bat bada. Salaberrik esaten duen bezala, “hirugarren *o* hori itxi gabe zegoen hasiera batean (*dolorosqui* bide genuen)”.

Forma honek, *dolorosqui*, hau da, *dolorezki*, Iparraldeko autoreetan tradizio luzea du, Etxeparek eta Axularrek jadanik erabilia.

3.

- E Ene anima Jangoycoagana belDuRequi/belDuRiqui partituristic
- S1 Ene anima Jagoycoagana beldurriqui partituristic;
- I1 Ene arima Jangoycoagana Beldurriqui partituristic,
- M Ene arima Jâgoycoagana beldurrequi partituristic,
- I2 Ene arima Jangoycoagana beldurriqui partituristic
- S2 Ene anima Jâgoycoagana beldurriqui partituristic; /
- Sa Ene anima Jangoycoagana belDuRiqui partituristic

*Eneren* bigarren *e* letra zuzendu zuten, baina hor ez da letra aldaketarik gertatu. *Arima* ala *anima* jartzen duen eztabaidatua izan da. Irigarayk *arima* irakurri zuen, eta Mitxelenak arrazoi eman zion, “los argumentos lingüísticos apoyan decididamente la primera forma” esanez. Baina Satrustegik eta Salaberrik esaten duten bezala, *anima* da argi eta garbi ikusten dena. Egia da Nafarroan eta Iparraldean XVI. eta XVII. mendeko autore guztietan *arima* forma aurkitzen dugula soilik. Salaberrik *anima* aurkitu zuen Garesen, eta *anime* Oltzan eta Goñerrian Bonaparte Printzeak bildutako materialetan. Horrek azaltzen du Amenduzekoak erabilitako forma, kontuan hartzen badugu erlijio testuetan agertzen direla forma horiek, eta testuinguru horretan herriko *arimak* latinezko *animaren* lehia zuela. Gipuzkoan ere ikusten da latinezko formaren eragina, Kardaberazen obran adibidez. Toponimian, *arima* forma ageri da Garestik ez oso urrun, Zudairin, *Arimazufi* leku izenean, eta *anima* Ergoienan, *Animazubi* toponimoan.

Bai *belDuRequi* bai *belDuRiqui* irakur dezakegu puntua kontuan hartzen ez badugu. Mitxelenak eta Salaberrik hustzat hartu zuten *i*

zalantzazko hori. Komitatiboaren marka gisa, *-eki* normala da Pirinioetako bi isurialdeetan.

4.

- E lagun gabe bide lusean peril asco pasaturic
- S1 Lagun gabe bide lusean peril asco pasaturic
- I1 Lagun gabe bide lusean Peril asco pasaturic
- M lagungabe bide lusean peril asco pasaturic,
- I2 Lagungabe bide lusean peril asco pasaturic
- S2 Lagungabe bide lusean peril asco pasaturic
- Sa lagungabe bide lusean peril asco pasaturic

Bertso honek ez du arazorik ematen. Nabarmentzekoa da *peril* hitza, gure klasikoetan erruz aurkitzen duguna (21), baina ez Nafarroa Garaiko autoreetan. Geroago Mendiburuk erabiliko zuen.

5.

- E honac Eta horrac bertan muduac Edequiric/Edequeric
- S1 Honac eta horrac bertan muduac idequiric
- I1 Honac eta honrrac bertan Munduac edequiric,
- M Honac eta ho<n>rrac bertan mu<n>duac edequiric
- I2 Honac eta ho-n-rrac bertan munduac edequiric
- S2 Honac eta ho(n)rrac bertan mu(n)duac edequiric
- Sa honac eta horrac bertan muduac ydequiric

*Edequiric* edo *Edequeric* irakur daiteke, nahiz eta testuinguruan argi egon zein aukeratu behar. *Ydequirik* irakurketa ez dakit zertan oinarritzen den, baina ez zait iruditzen zuzena. Bertso honetan Irigarayk proposatutako zuzenketak, gero Mitxelenak eta Satrustegik oniritziak, bidezkoak dira nire ustez. Salaberri beste bide batetik doa, eta “*onak eta honrak* ikusi beharrez *honac eta horrac* ‘harat-hunatak, osterak, bidaiak’ ikusiko genuke” dio. 62r orrialdean Amenduzekoak “Vna horra” idatzi zuen gazteleraz, eta pentsa dezakegu olerkian hitz bera mailegatuta darabilela.

(21) Adibidez, Etxepare: “Eta othoi begirezan peril guzietarik”; Leizarraga: “Bakerekin eta amorekin, etsaien peril eta beldur orotarik delibraturik”; Axular: “...eta hunelako bertze peril mueta batzuez”.



Beriainek ere holako kontzeptuak batera erabiltzen ditu, eta antzeko moldez ematen ditu aditzera: “mundu onetaco gauzetan, haciendan edo honran pensacen dutela” (22). *Bertan* adberbioak ‘berehala’ adiera du hemen, hurrengo bertsoan ageri den *azqueno* adizlagunari kontrajarria, nolabait esateko, oso txikitandik geratu baitzen Amenduze umezurtz, bere ahaidegoaren menean.

6.



- E plazerac azqueno asecafe biurturic/biurtiric
- S1 Plazerac azqueno asecafe biurturic.
- I1 Plazerac azquenic Asecafe biurturic,
- M Plazerac azque[...] asecafe biurturic.
- I2 Plazerac azqueric Asecafe biurtoiric
- S2 Plazerac azqueno asecafe biurturic. /
- Sa plazerac azqueno asecafe biurturic

Hemen ere *biurturic* / *biurtiric* aukera dugu. Salaberrik autorearen idazteko arte eskasari zor zaion zuzenketa bat ikusten du, “biurturik biurtirik (zen lehenbizi)”. Esateko gehiagorik eman du *azqueno* formak. Irigarayk ez zuen asmatu eta Mitxelenak hutsune bat, *azque[...]*, utzi zuen: “En 6, Satrustegui lee *azqueno* (*azqueño*?) e Irigaray *azqueris*, que corrige en *azquenic* ‘finalmente’: el sentido en todo caso es aproximadamente el mismo”. Itzulpena ‘al fin’, ‘al final’, izan da kasu guztietan. Nire ustez, argi eta garbi dago forma hori, gure klasiakoetan eta Iparraldeko euskalkietan erreparatzen badugu. Haietan, *-(n)o* atzikia denborazko postposizioa da (23), gaur egun euskara estandarrean adlatiboaren markari atxikitzen dioguna, muga adlatiboaren sortzeko.

Bide horretatik, bertsoaren zentzua nabarmen aldatzen da, eta aldaketa hori bat dator testuaren zentzuarekin, bere osotasunean hartuta.

(22) Juan de Beriain, 1621, 32.

(23) Orpustan, 1997, 150: “Le suffixe de limitatif ou approximatif indique la limite d’un acte ou un état, traduisant donc la locution prépositive ‘jusqu’à’; il a diverses formes, depuis le simple –o, en passant par le plus courant –no, et la forme de ‘surdéclinaison’ sur l’adlatif –rano, et même –ra(d)ino qui semble construite sur l’adlatif –rat avec voyelle de liaison après consonne: –o est figé dans le navarro-labourdin arteo avec fermeture vocalique régulière dans les expressions sarri artio, bihar artio, etzi artio, ikus artio”.



Orain ezin dugu itzuli “los placeres se han vuelto al fin pesares” edo “los placeres se han convertido al final en pesares”, baizik eta “los placeres (onak eta honrak, gurasoen herentzia, adiskidetasuna...) hasta el final (jusqu’à la fin, hasta el momento de la muerte) convertidos en pesares (disgustos, amarguras, sinsabores)”.

7.

- E haydeac eta adisqueideac artes gutis acenduric
- S1 Haydeac eta adisqueideac urte(s) gutis acenduric
- I1 Haydeac eta adisqueideac artes gutis acenduric,
- M Haydeac eta adisqueideac urte gutis acenduric
- I2 Haydeac eta adisquidiac artes gutis acenduric
- S2 Haydeac eta adisqueideac urtes gutis acenduric
- Sa haydeac Eta adisqueideac artes gutis acenduric

Bertso hau eta hurrengoa lotuta daude. Mitxelenak dio: “En la traducción que se ha propuesto, se admite un encabalgamiento entre los vv.7-8: “a los parientes y amigos” (*haydeac eta adisqueideac*) “los veo” (*ycustetut*) “olvidados al cabo de pocos años” (*acenduric*)”. Nire ustez, ez dago dudarik *haydeac eta adisqueideac ycustetut* aditzaren osagarri zuzena dela, *tut* formak *ditut* laguntzailea ordezkatzan duela, gure klasikoetan ikusten dugun bezala (24). Hemen *artes gutis acenduric* osagarri zuzenaren osagarria da, edo, beste modu batera esanda, 7. bertso osoa *ycustetut* aditzaren osagarri zuzen gisa jokatzan du. Jostera hori ez da arraroa gure klasikoetan. Leizarragarengan, adibidez, partizipioa, partitiboz emana, osagarri zuzenari atxikia aurkitzen dugu behin baino gehiagotan: “...estecaturic eraman ceçaten...”, “...ikussiren duçue ceruã irequiric...” (25).

Ez dago dudarik *artes gutis* irakurketan, eta Salaberrik ondo azaltzen du esanahia, Juan de Beriainen *Tratado de cómo se ha de oyr missa* liburutik ateratako adibideak ekarriz. Beriainek *arte guti bates* dakar bitan, ‘por algún breue espacio’ eta ‘por un breue espacio’ itzulpena egiten duelarik. Dudarik gabe hori da sintagma horren zentzua. Iparraldean ere horrela izan da erabilia (26). Dena dela Salaberrik “en

(24) Bai eta Leizarraga Elkanokoarengan ere.

(25) Apud Letamendia, 1980.

(26) Leizarraga (“S. Paul Apostoluaren Korinthianoetarako Epistola Bigarrena, Kap. III”): “17 Ezen gure afliktione arin artegutitakoak eragiten du gutan gloriatako pizu ezellent exellentki eternal bat”.

Oihenart (O[hienar]ten gaztaroa nurthizetan):

“Ud' ere negu, negi'uda

gerthatu da hain berzetan. (...)

Arte hartan, zer ez tute egin

poco tiempo” itzultzen du, eta ez dakit nik gauza bera den. Irigarayk, ondo irakurri eta gero, azalpen bat eman zion bitxia suertatzen den formari: “El arte(s) gutis de la 8ª linea puede, en cambio, ser un modismo más que errata, pues en Dechepare, que es de un dialecto similar y con cuyo texto podemos comparar este documento, leemos en el capítulo *Doctrina Christiana (Oracione igandeco): Neure beq-hatuyez oroz dudan varqhamenduya*, en vez del *beqhatu oroz* esperado”. Mitxelenak, berriz, “es dudoso a pesar de lo que éste dice que la repetición del sufijo –(e)s sea otra cosa que un descuido gráfico” erantzun zion. Nire ikuspuntutik, arrazoa zuen Irigarayk, beste autore batzuetan ere ikusten direlako gehikuntza horiek, baina gaiak ikerketa sakonago eskatzen du (27).

*Acenduricen* esanahiak lana eman du. Satrustegik “Olvidado en poco tiempo de parientes y amigos” itzuli zuen bertsoa. Irigarayk horretan jarraitu zion, eta Mitxelenaren arropostua pairatu zuen: “Parece que, de ser ‘olvidado de parientes y amigos’, según vierte Irigaray, tendríamos *haydeek eta adisquideec*, en activo pl., y no los nominativos del texto”. Salaberrik, berriz, Mitxelenaren argumentua errrefusatzeko du, eta Satrustegiren ikuspuntua onesten du: “Los parientes y amigos se han olvidado de mí en poco tiempo”.

*OEHN* ageri diren *atzendu* aditzaren testigantzak Hegoaldekoak dira, batez ere goi nafarrera erabiltzen duten testuetan bilduak. Nik ez dut uste hemen autoreak “ahaztu” esanahia adierazi nahi zuenik, ez dator bat, nire iritziz, testuinguruarekin. Nik, hor, Hegoaldeko forma horren atzean, ikusiko nuke eraketa morfologikoaz eta semantikaz hurbila den Iparraldeko *azkendu* aditza. Gurutzaketa hori posible da, eta Salaberrik argudio bera erabiltzen du *partidurik* hitza azaltzerakoan, hau esaten duenean: “Beharbada hemen berriz ere mendiez beste aldeko hitza dukegu, pixka bat mozorroturik, hegoaldeko itxuraz”. *Azkendu* “permanecer, quedar” itzulpenarekin azaltzen du *OEHN*k, eta Leizarragak (28), Oihenartek eta S. Pouvreaux idatzitako testigantzak eskaintzen ditu. Poetak ahaideak eta adiskideak jadanik ez direla ahaideak eta adiskideak adierazi nahi du, ezin direla ahaidetzat eta adiskidetzat agertu, denbora gutxiz izan zirela ahaideak eta adiskideak, zeren, haren ustez, gurusoak hil egunetatik, traizionatu, gabetu, kartzelan ipinarazi... egin baitute ahaideek, ez ahaztu. Eta berak ere ezin du ahaztu, noski. “Los parientes y amigos, (los cuales) por breve espacio de tiempo permanecieron (como tal, tales)” itzuliko genuke, nolabait.

8.

Zureki adizkidetzeko?”

(27) Axular (“Iracurtçailleari”): “Bada esquiribatceaz denaz beçan batean ere ez naiz eguitemo gabe”.

(28) Leizarraga (“Rom 11, 3”): “Ni azkendu izan nauk neuror” ematen du “Ego relictus sum solus” latinezko esaldia itzultzeko. Relinquir aditzak ‘utzi, laga, abandonatu’ du adiera era aktiboan, eta ‘geratu, egon’, era pasiboan.

E ycustetut ysusiRic arrece gusia des Eginic

- S1 Ycuste(n) tot ysilduric; arrec-e gusia deseginic
- I1 Icusten tut ysuriric Arresi gucia deseginic,
- M Ycustetut ysuriric, arreci gusia deseginic,
- I2 Ycudentut ysuriric arreci gusia deseginic
- S2 Ycustetut ysuriric; / arrec e(re) gusia deseginic
- Sa ycuste(n)tul ysuriRic arrece gusia des Eginic

Bertso hau irakurtzeko arazoak izan dira. Irigarayren iruzkinetik hona (Satrustegik ez zuen berdin irakurri 1963an) *ysuriric* irakurri dena *isusiric* da, nire ustez. Salaberriren aburuz, “garbia da, alegia, argi irakurtzen da, nahiz eta ahaideez eta adiskideez ari dela *isuri* opatzea bitxi askia den”. Dena den, nik *isusiric* ikusten dut.

Konparatu besterik ez da behar bertso berean *des Eginic* hitzean ageri den *s* hori guztiz berdinarekin:

Beste *s* batzuk oso antzekoak dira.

Hemen osagarri predikatibo bat genuke, *itsusirik*, denbora gutxiz atzenduriko ahaideez eta adiskideez predikatua, eta zentzu morala du, ez fisikoa, noski<sup>29</sup>.

Moral kristauan hobena eta haren ondoriozko infernua *itsusi* kontzeptuari lotuak ibili dira. Joanes Etxeberri Ziburuko teologoak bere *Manual debozinezkoan* infernuaz aritzen denean izugarrizko deskripzioak eskaintzen dizkigu, eta haietan erakusten digu lotura hori:

“Aphurtxo baten buruan gero, kondemnatua agertzen da lehendanik itsuski mudatua”.

(29) Harrieten hiztegian ‘laid, vilain’ ageri da.

Illea du xigortua, bethazalak gorriak  
 eta nigar isuriez betheak bi begiak;  
 bisaia kolor gabea, bekhoki xixkaldua  
 eta kolpe handiz gorputz guztia herrendua;  
 larrua du khe belzaren kolore itsusiko  
 eta hautsko hantuaeren bulharrak iduriko.” (30)

Liburu aszetikoetan eta haien artean buru dugun Axularren *Geron*, maiz agertzen da kontzeptu hori bekatuari atxikia, baina Iparraldean obra laikoetan ere aurkitzen dugu gaiztakeria ala zatarkeria adierazteko. Hona hemen Mixel Elizanburu (*Frantziako hirur errepublikaren ixtoria laburki*) eta Jean Etxepareren (*Mendekoste gereziak*), adibideak:

“Marat **itsusia**, hil zuen bere mainhuan, puñal ukhaldi batez, neskatxa batek”.

“Tropa **itsusia**, gabaz yuan zen Versaillarat, eta sarthu argi hastean hango palazioan”.

“Zer ote du buruan? Haur **itsusiak**! Haurrek bertze ziri bat hartzen dute, oraino luzeagoa”.

Amenduzek “(A mis parientes y amigos) los veo abominables, envilecidos” edo horrelako zerbait esan nahi zuela deritzot.

Bertsoaren bigarren hemistikioan bat nator Salaberriren irakurketa eta hipotesiarekin, hemen *harretse* (edo *harretxe*?) ikustean. Esaldi kausal-esplikatihoa izango litzateke, non *harretxe* hitzak ahaide eta adiskide itsusiek kendu diotena, hau da, “la casa solar”, irudikatzen duen. Jimeno Juriok, Amenduzeren izaera azaltzerakoan honela esaten du: “Su temprana orfandad, la delicadeza de sentimientos, su adolescencia en tierras extrañas, las dolencias, los fracasos continuados, el trato recibido de sus tutores, **la enajenación de la casa y la hacienda familiar**, fueron circunstancias que contribuyeron a que observara una conducta versátil” (lodiak nireak dira).

9.

*Agustin Kardaberazek antzeko motiboak erabiltzen ditu Ejerzizioen gañean afektoak obran: “Baña anima kondenatu batek, ai zeñ itsusi izugarria bere gorputza topatuko duen! Zeñ nazkagarria! Bere pekatu guzien artean itsusiena egin zuen lekuan, bear bada topatuko da: ta ikusi, ta arrabiazko adia tristeaz, esango dio: Ai nere zori gaiztokoa! Au da, au gorputz galdua, zeñean, ta zeñagatik, añ ainbeste pekatu egin nituen! Karzela illun ziega illgarri onetan, nere eriotza eternidadekoaren obi ustel onetan sartu bear det! Ah gorputz madarikatu nere desdirtxa guzien asiera! Ai! Or arturikako atsegin labur, ta gusto loi, ta lotsagarriak zeñ garesti kosta zaizkidan! Ai Ta infernuko tormentuak irabazi, ta betiko kondenatu nazala!”*


(30) Agustin Kardaberazek antzeko motiboak erabiltzen ditu Ejerzizioen gañean afektoak obran: “Baña anima kondenatu batek, ai zeñ itsusi izugarria bere gorputza topatuko duen! Zeñ nazkagarria! Bere pekatu guzien artean itsusiena egin zuen lekuan, bear bada topatuko da: ta ikusi, ta arrabiazko adia tristeaz, esango dio: Ai nere zori gaiztokoa! Au da, au gorputz galdua, zeñean, ta zeñagatik, añ ainbeste pekatu egin nituen! Karzela illun ziega illgarri onetan, nere eriotza eternidadekoaren obi ustel onetan sartu bear det! Ah gorputz madarikatu nere desdirtxa guzien asiera! Ai! Or arturikako atsegin labur, ta gusto loi, ta lotsagarriak zeñ garesti kosta zaizkidan! Ai Ta infernuko tormentuak irabazi, ta betiko kondenatu nazala!”

- E argi gabe yllunbetan hustel Eta quirasturic
- S1 Argi gabe yllunbitan hustel eta quirasturic
- I1 Argi gabe yllunbetan Hustel eta quirasturic.
- M Argi gabe yllunbetan, hustel eta quirasturic
- I2 Argi gabe yllunbitan Hustel eta quirasturic.
- S2 Argi gabe, yllunbetan, hustel eta quirasturic.
- Sa argi gabe yllunbitan hustel Eta quirasturic

Irakurketa aldetik soilik *yllunbetan* izan da era desberdinez irakurria -e- gainean puntu bat ageri delako. Bertso hau aurrekoari lotua doa, osagarri predikatiboaren funtzioa betetzen du aposizioan. Hemen erabiltzen diren kontzeptu berberak ditugu Axularren *bekhatu* kontzeptuari lotuak: itsuskeria, itsutasuna, usteldura, kiratsa (31). Amenduzek bere ahaide eta adiskide ohiak nola ikusten dituen azaltzen du: berari egin zioten kaltea bekatua da, ez da bakarrik mundu honetako afera. Urte askoan ibili zen auzitan sartua, baina berak Jaungoikoaren Judizioan kondenatuak ere nahi ditu ikusi (ikusten ditu) hainbeste oinaze, hoben, ogen egin diotenak.

*Yllunbetan* berban ageri den bustidura Iparraldeko tradiziotik aldentzen den ezaugarria da, zeren *ilhun-* baita Etxeparen, Leizarragan, Axularren eta Ohienarterengan ageri den forma bakarra, nahiz, *OEH*ren arabera, Iparraldean ere, eremu batean, *illun-* forma aurki dezakegun. Beharbada hemen, beste ezugarriekin batera, gure autorearen famili hizkeran Iruñeko mintzairak zuen eragina ageri da.

10.




- E nigar begi bapederac bere aldias oRoyturic
- S1 Nigar begi bapederac bere aldias oroyturic
- I1 Nigar begi bapederac Bere aldias oroyturic.
- M Nigar begi bapederac bere aldias oroyturic:
- I2 Nigar begi bapederac Bere aldias oroyturic.
- S2 Nigar begi bapederac bere aldias oroyturic
- Sa nigar begi bapederac bere aldias oRoyturic

*Nigar* forma “ez dator bat Iruñe inguruan aurkitu ohi dugun *negar* aldaerarekin” Salaberriren esanetan. Gure klasikoetan, berriz, *nigar* da aurki dezakegun aldaera.

(31) Gero: Kap VII “Aditzera emaitteagatik, zein gaitz den, denbora luzeaz, bekhaturan usatua, usteldua, eta kirastua dagoen bekhatoaren sendatzea, eta erremediatzea”. Kap LI “Urthe guztian, eta batzutan gehiago ere, bekhatuaren eritasunean ustelduak, eta khiras-tuak baitaude”.

Salaberrik, halaber, dio Nafarroa Garaian ez dela *bapedera* aldaera aurkitzen “hau da, sinkoparik nozitu ez duen aldaera, ez konparatione Berriainek ibiltzen duen *bapedra* edo Elizalderen *batbedra*”.

11.



- E neorcore/niorcore isanen Estu ni estudan partiduric
- S1 Niorc ere lanen estu ni(c) estudan partiduric
- I1 Niorc ere isanen estu Nictudan partiduric
- M Niorc ere isanen estu ni<c> estudan partiduric.
- I2 Niorc ere isanen estu ni(c) estudan partiduric.
- S2 Niorc ere isanen estu ni(c) estudan partiduric.
- Sa niorcore isanen Estu ni estudan partiduric

Ez dago guztiz argi, baina uste dut posible dela *neorc* irakurtzea. Koadro honetan konpara dezakegu testuan ageri den *ne - ni* grafien arteko aldea:

nigar	anima	anima	ni
neorc	ene	ene	isanen

Ikusten denez *e* letrak zabaltasuna du ezaugarria, neorc/niorc zehazteko balio bide duena. Forma biak ditugu Iparraldeko autoreetan. Leizarragak (32), Axularrek (33), Oihenartek (34) *nehork* erabiltzen dute, Etxeberri Ziburukoak eta beste batzuek *nihork* (35). Hegoaldean, berriz, *yorqere* izkiriartzen du Berriainek, eta *yor*, *ior*, *igor*, *iñor* dira eredu honetan ikusten diren aldaerak (36), salbu Lizarraga Elkanokoarengan, zeinak *niór* erabiltzen duen, seguru aski Larramendiren eraginagatik.

(32) Heuscaldunei: “Ezta zertako nehork hemen deabruen ez espiritu satsuen testimonia-jerik allega dezan”.

(33) Gero, LIV: “*Galdu* da arima haur, eta eztu nehork ere nik baino damuago”.

(34) Honek Etxeparek erabiltzen zuen *ehor* aldaera ere badakar, eta atsotiztetzan *nihori* (datiboa) ageri da, Iparraldeko aldaeren erakusgarri.

(35) *Noelac*: “Hiritik ere ilkhi zen,

ezen bere etxera

nihork ere gonbidatu

etzuen etzitera”.

(36) Salaberri, 1996, 95.

Mitxelenak bertso honetaz hauxe dio: “Irigaray propone *niorc isa - nen estu nic tudan partiduric* “nadie tendrá la suerte (enemigo) que yo tengo”. Se diría, sin embargo, que Amendux quiere decir una cosa bien distinta: que su condición humana, es la misma que la de los otros hombres y que, por ello, nadie puede esperar razonablemente un trato mejor que el que él ha recibido. El sentido de *partiduric* depende, naturalmente del valor preciso que se quiera asignar a su modelo castellano *partido*”. Berak “amparo” itzultzen du. Puntu honetan, Satrustegik argumentu sendoagoak eman ditu eta, berak esana, “tendríamos la imagen de un hombre atormentado que se siente, en un momento, víctima de todos los contratiempos” eta “Nadie tendrá contrariedad que yo no tenga” itzulpena hobeki dator testuinguruarekin. Amenduze, beste gizakien aldean, zorigaiztokoagoa, malurusagoa, sentitzen da. Bertso honek lotura estua du aurrenekoarekin, eta, horregatik, itzultzerakoan “nadie habrá tenido contrariedad (enemigo) que yo no haya tenido” hobesten dut, zeren autoreak eskatzen baitu gutariko bakoitzak gure oroimenean murgiltzea.

Jadanik 1963an Satrustegik ikusi zuen “*niorcore*” = ‘*niorc ere*’.

12.

E ene anima duçuen gomendatu garitates mobituric  
 S1 Ene anima duçuen gomendatu garitates mobituric  
 I1 Ene arima duçuen gomendatu Garitates mobituric.  
 M Ene arima duçuen gomendatu, garitates mobituric.  
 I2 Ene arima duçuen gomendatu Garitates mobituric  
 S2 Ene anima duçuen gomendatu, garitates mobituric  
 Sa ene anima duçuen gomendatu garitates mobituric

Hemen, hirugarren bertsoan ere aurkitu dugun *anima* formaren inguruan baino ez da sortu eztabaida. Hegoaldean, toponimian *Garitate* dugu (37), Beriainek eta Lizarraga Elkanokoak *caridade* zerabilten, eta Iparraldean *karitate*. *Mobitu*, berriz, iparraldeko forma da, *mogitu* hegoaldeko formaren aldean, *OEH*ren arabera. Morfologia aldetik, ez dago desberdintasunik Bortuen bi aldeetako autoreen artean, indikatiboa modu subjuntiboan —zentzu desideratibo edo erregetzailearekin— erabiliz, bertso honetan egiten den bezala (38).


(37) Garitategayna, Ameskoan, c. 1700. urtea.

(38) Adibide bat jartzekotan, Etxepareren hau: “bascoac bercec beçala duten (= izan deza- ten) bere lengoagian scribuz cerbait doctrina eta plazer harceco, solaz eguiteco, cantaceco eta denbora iragaiteco materia”.

13.

- E çarayz quiDate gero bertan yçoc ongi notaturic  
 S1 Çarrayzquidate gioco bertan yçoc ongi notaturic  
 I1 Çarrayzquidate gucis bertan Yçoc ongi notaturic.  
 M Çarrayzquidate guci bertan yçoc ongi notaturic.  
 I2 çarayz quidategucis bertan Yçoc ongi notaturic.  
 S2 Çarrayzquidate gioco bertan yçoc ongi notaturic:  
 Sa çarayz quiDate g- bertan yçoc ongi notaturic

Oraino hitz bat geratu zen bertso honetan irakurri gabe. Gehien hurbildu zitzaiona Satrustegi izan zen: “*gioco*” (quizá, “*geoco*”) = *gero* - *co*”. Idazkera estuak *r* kontsonantearen irakurketa zailtzen du, baina bestela *r* letraren ezaugarri arruntak ditu. Azken *o* letra trenkatua ageri da, orriaren goialdeko erdarazko testuan *ocho* hitzan ageri den bezalaxe.



Ez dago asko garbi hemen denborazko esanahia duen ala lokailu funtzioa. Lehen kasuan aurreko bertsoaren *consecutio*a adieraziko luke, hau da ‘gomenda ezazue nire anima eta gero...’. Bigarren aukerara *Etorri gero!* bezalako lokuzioetan komunzki egiten dugun erabile-  
 ra berbera izango litzateke. Etxeparek bere *Doctrina Christianan* oso antzeko esamoldea baliatzen du: “Vertan guero so albaitegui non den gorpuz sailduya”.

*Içoc* forman nabarmena da zein hurbil dauden *hitzok* —izen gehi mugatzaile hurbila— eta *hitz hok* —izen gehi erakuslea—, hau da *hitz hauek*, erakusle horren behenafarrerazko aldaera (*h*)*ok* izanik.

*Jarraiki* aditzak ez du hemen zentzu fisikorik, noski. Hitzegiak “Nor bait edo zerbait eredu, gidari edo arautzat hartu, nor baiten iritziak edo erakutsiak onartu” azaltzen duen esanahia dugu hemen.

14.



E Josafate baturen gara Judision ElcaRequi  
 S1 Josafat baturen gara judision elcarrequi  
 I1 Josafaten baturen gara Judision elcarrequi  
 M Josafat<en> baturen gara judision elcarrequi  
 I2 Josafaten baturen gara judision elcarrequi  
 S2 Josafat(en) baturen gara judision elcarrequi.  
 Sa Josafate baturen gara judision ElcaRequi

Bertso honek Etxepareren oihartzuna dakar. Hona hemen nafarraren bertsoak:

“Arma arma mundu oro iudizio handira  
 Zeru eta lur oren kreadore handia  
 Mundiaren iuiazera rigoroski heldu da  
 Nola gauden apphaindurik bat bederak begira.  
 Manamendu igorten du mundu guzietarik  
 Jende oro bat dakion iosafaten bildurik  
 Ehonere ehorere eskapatu gaberik.  
 Zeru eta lur guzia daude ikharaturik.”

Tradizio kristauan erabilera luze izan duten topikoak dira horiek. *Josafaten* aipamena gaurko eguneko herri hizkeran ere aurkitzen ahal da.

*Baturen* eta *Judisio* Iparraldeko aldaerak dira Salaberriren aburuz. “Badira olerkian guk Nafarroako testu zaharretan aurkitzen ez dugun gauza bat, geroaldia egiteko genitiboaren erabilera hain zuzen ere, aditza bokalez denean (*baturen gara*), zeren bestelakoak (*izanen, egi -nen, eramannen...*; cf. Amenduxen beraren *isanen estu*) izan baitira eta baitira —orain izain, eramain... bilakatuak maiz— aipatu euskalkian” dio goi nafarreraz ari delarik. Iparraldeko Nabarran, berriz, komunzki aurkitzen dugu bai klasikoetan bai geroagoko literaturan (39). Berdintsu gertatzen da *judizio* aldaerarekin (Etxeparek, Leizarragak eta Axularrek *iudizio* grafia erabiltzen dute). “Azkenaurreko lerroan ageri den *judisionen* tarteko *-d-* hori ere baliteke bide beretik azaldu behar izatea [Iparraldeko euskalkietakotzat jo]. Guk hegoaldeko goi-nafarreraz idatzi testuetan ez dugu opatu” adierazten du Salaberrik. Bitxia da *OEHN* ematen den argibidea: “Al norte se documenta la forma *judizio*, que aparece tbn. en unos pocos textos vizcaínos y en uno alto-navarro”. Nahaste baino ez du sortzen testu honi halako etiketa atxikitzeak, zeren aipamen askotan salbuespen moduan geratzen baita Amenduzeren testua.

(39) Jean Pierre Duvoisin (Telemake): “Artzainek, ur-erreka garbien bazterretan baturen dituzte beren bozak beren xirolekkin, arthalde burbutzikariak alhan doazilarik belharrean eta lilipean, otsoen beldurrikan gabe”. Goietxe, Leonce (Fableak edo Alegiak): “Agian hunek ere baturen ditu bereak”.

15.

- E bitarteko lodagigun baquea dela gusiequi.
- S1 Bitarteko lo dagigun baquea dela gusiequi.
- I1 Bitarteko lo dagigun Baquea dela gusiequi.
- M bitarteko lo dagigun, baquea dela gusiequi.
- I2 Bitarteko lo dagigun, baquea dela gusiequi.
- S2 Bitarteko lo dagigun, baquea dela gusiequi.
- Sa bitartea lodagigun baquea dela gusiequi

Salaberrik irakurketa berria proposatu du lehen hitzerako. “Hemen Elkanoko Lizarragak ibiltzen duen *bitarteko* ikusi nahi izan bada ere, garbi dago *-a dugula*” esaten du. Ni ez nator bat. Zenbaitetan *-o* eta *-a* nahas daitezke, baina normalean *a* bokalak oso garbiak dira eta *o* letrak dira arazo sortzen direnak. Horrela ikusten da adibidez 62r orrialdean, non dudazko *mendaça* bat *mendoca* agertzen da gero argi eta garbi. *Azkeno* eta *bitarteko* arteko paralelismoa agerian dago eta, nire uste apalean, *azken* + *o* eta *bitarte* + *o* eraketak erraz azaltzen dira, arestian ikusi dugun harira.

*Artioren*, *arteoren* edo *artenoren* testigantzak ez dira urriak euskal eremuaren ekialde osoan, baina *bitarteko* dokumentatzen da, OEHren hitzetan, “en textos navarros peninsulares”, konkretuki Elkanokoarengan eta Amenduzekoarengan, eta Erronkarin, Azkueri jarraituz.

Lizarraga Elkanokoak *bitarteko* erabiltzeak zer nahi du esan? Hego goi nafarrerako lexikoan sailkatu behar dugula hitz hori? Uste dut egin gabe dagoela oraindik Joakin Lizarragaren obraren ikerketa sakona, eta arinegi ematen dela bere idazkera hego goi nafarrerako ispilu gisa, kontuan izan gabe zenbait autore garaikideren eragina.

Satrustegik, 1963. urtean olerkia deskribatzerakoan, hau esaten zuen: “La rima es consonante y única, a excepción del pareado final, que es consonante en sí, y asonante con relación a toda la poesía”, baina neurketari buruz ez zuen xehetasunik eman. Memento hartan poesia jasotzat hartu zuen Amenduzeren olerkia: “Dada la relativa antigüedad del documento cabía esperar fuera una manifestación elemental de la lírica popular vasca (...) Sin embargo salta a primera vista el rescoldo de influencias extrañas. Ya el mero hecho de haber cuajado en tercetos, recuerda el módulo consagrado en elegía por los clásicos españoles”. Baina 1975ean ideia hori baztertu zuen, antza denez, zeren hirukoak desagertzen baitira testua osatzerakoan. Jimeno Juriok eta Salaberrik, ostera, Amenduzeren kultur eskasia nabarmendu dute.

## METRIKA

Nik uste dut herri poesiaren barruan sailka dezakegula Amenduzeren olerkia. Edukiaren aldetik, kristau tradizioa eta ahozko ikasbidea ikus ditzakegu, Etxepareren parean jarri dugunean bezala. Forma aldetik, herri poesiaren ezaugarriak ditugu: metrika irregularra, baina eskema baten barruan. Etxeparerenarekin eta Oihenartek “vulgares versificadores” deitzen dituenekin konpara dezakegu.

Urkizuk zuzendutako *Historia de la literatura vascan* olerki honi buruz esaten dena ez da guztiz zuzena: “Son, pues, quince versos de trece sílabas, o si se prefiere, treinta versos si se sigue el modelo del *zortziko txikia*, cuya estructura es 7-, 6a, 7-, 6a, donde aflora el yo desgraciado del autor” (40). Asmatzen badu ere bertsoaritzaren mundura hurbiltzen duenean Amenduzeren olerkia, edonork ikus dezake silaba gehiago daudela bertso bakoitzean.

Herri poesiaren ezaugarriak bertsoak kantatzeko joerari lotuak dabilta. Mitxelenak “En el uso popular el verso va íntimamente unido al canto” dio (41). Patxi Altunak Julio Caro Barojaren hitzak gogorazten ditu: “No se concibe un verso vasco sin música, por elemental que esta sea, a no ser que se trate de una obra sabia”, eta Etxepareren eta Oihenarten testigantzak dakartza (42). Ondorioz, bertsoaren eraketa eskema metrikoak izugarritzko garrantzia du, eta gertakari fonikoak eskemaren menpera daude. “El criterio objetivo para la realización o no de un determinado fenómeno fonético viene dictado por el esquema” eta “no es posible saber fuera del contexto métrico en que se emite y al margen de la manera concreta como en cada caso se pronuncia, qué numero de sílabas posee un verso como *Txoriak bere umeak baño*, que podría oscilar entre 8 y 10.” diosku Altunak Etxepareren eta herri poesiaren gainean. Herri metrikan bertsoa bi hemistikiotan banatzen da zesura batekin, eta hemistikio bakoitzean eten edo semizesura bat dago. Mitxelenaren eta Altunaren aburuz, 4/4//4/3 eskema da Etxeparerengan eta antzinako herri olerkigintzan duguna. Ezaguna denez, ideia hori eztabaidatua izan da azken urteetan, eta zenbait ikerlek, Jon Juaristi eta Ibon Sarasola haien artean, pentsatzen dute hamaseina silabakoak direla Etxepareren bertsoak. Ez naiz hemen eztabaida horretan sartuko, baina nik Amenduzeren olerkian 4/4//4/4 eskema sumatzen dut:

he men na ça / [o h]or ci ric // noyz bait go zo / e ri ci ric 16  
e ri o ac /us te ga be // do lo res qui / e go ci riq 16

(40) Urkizu, 2000, 137. Euskal testua ez da ageri, Mitxelenaren itzulpena baino ez, huts nabarmen batzuekin: “entonando bien estas palabras”.

(41) Mitxelena, 2001, 62.

(42) Altuna, 2002, 71. Etxepare: “baskoek berzek bezala duten bere lengoajian skribuz zerbait doktrina eta plazer harzeko solaz egiteko kantatzeko eta denbora igaraitzeko materia eta jinen direnek”; Oihenart: [Exeberri Ziburukoari buruz] “je lui ay ouy dire au temps qu’il composoit ses versqu’il travaillaitprincipalement pour les mariniers lesquels les chantoint sur le mer”.

e nea ni ma / jan (goy) coa ga na // bel du rre qui / par ti tu ric 16  
 la gun ga be / bi de lu sean // pe ril as co / pa sa tu ric 16  
 ho nac e ta / ho rrac ver tan // mu du ac / e de qui ric 15  
 pla ze rac / az que no // a se ca be // bi ur tu ric 14  
 hay deac e ta / a dis qui deac // ar tes gu tis / a cen du ric 16  
 y cus te tut / y su si ric / a rre ce (gu si)a / des e gi nic 16  
 ar gi ga be / y llun be tan // hus tel e ta / qui ras tu ric 16  
 ni gar be gi / ba pe de rac // be re al dias / o roy tu ric 16  
 ne or co re / i sa nen es tu // nic es tu dan / par ti du ric 16  
 e nea ni ma / (du çuen) go men da tu // ga ri ta tes / mo bi tu ric 16  
 ça rrayz qui da te / ge ro ber tan // y çoc on gi / no ta tu ric 17  
 jo sa fa te / ba tu ren ga ra // ju di si on / el ca rre qui 17  
 bi tar te o / lo da gi gun // ba quea de la / gu si e qui 16

Lehen begirada batean ikusten denez, bertso anisosilabikoak ditugu, hau da, irregulartasunak ageri dira. Ezaugarri hori Etxeparerengan, Etxeberri Ziburukoarengan eta herri autoreetan normala da, eta kantatua izateari loturik dago. Eskema bati jarraituz, irregulartasunak ahozko baliabideak erabiliz moteltzen dira. Gainera, ohikoa izaten da ahozko espresioa bat ez etortzea idazten denarekin. Adibidez, hirugarren bertsoan *Jangoycoagana* idazten dena *Jankwagana* esaten ahal da kantatzerakoan, lau silabatan ebakiz, eta eskemari jarraituz.

Egia esan, Mitxelenak eta Altunak 4/4//4/3 ikusten zuten eskema, beharbada, hemen ere ikus genezake. Partizipioetan, bokalen arteko *r-* galtzen ohi da herri hizkeran, eta hiru silabatan ebakiko lirateke (43). Baina zesura aurretiko partizipioek eta azken bi bertsoek iritzi horren kontra jokatuko lukete.

Laburbilduz, nik esango nuke olerki hau kantatua izan zela idatzia baino lehen, hau da, pentsatua eta kantatua bere osotasunean, bertsolarietara egiten duten bezala, eta gero idatzia. Horrela azalduko genuke, baita ere, arestian aipatu dugun originalaren kontua, eta zergatik ageri diren bertsoak lerro desberdinetan bananduak.

Aieru hau edizio kritikorako kontuan har dezakegu, arriskutsua bada ere. Eskema betetze aldera lehen bertsoan zuzenketa bat proposa genezake, *orciric* lau silabatan jartzeko, Iparraldeko *ohortzirik* aldaera (44) hobetsiz, baina hori testuan agertzen ez den hasperenke-ta bat sartzea liteke. Beste irregulartasun batzuk ere ageri dira testuan eta, esan dugun moduan, kantatzerakoan baliabide fonikoekin konpondu ahalko lirateke.

(43) Altuna, 2002, 76: “participios en el caso partitivo como sendoturic y vaqueturic en final de verso (III, 61-62), cuya pronunciación en tres sílabas –sendotuyc y vaquetuyc- es obligada en el supuesto del número de sílabas pentadecasilabo”.

(44) Leizarraga (“S. Paul Apostoluaren Kolosianoetarako Epistola, 12”): “Ohortzi, resuzitatu, bibifikatu eta delibratu Kristez”.

**EDIZIO KRITIK OA**

Hemen natza ortzirik, noizbait gozo eritzirik,  
 erioak uste gabe dolozki egotzirik,  
 ene anima Jangoikoagana beldurreki partiturik,  
 lagun gabe bide luzean peril asko pasaturik,  
 honak eta ho[n]rrak bertan mu[n]duak edekirik,  
 plazerak azkeno atsekabe biurturik.  
 Haideak eta adiskideak, artez gutiz atzendurik,  
 ikuste[n di]tut itsusirik, arretxe guzia deseginik,  
 argi gabe illunbetan, hustel eta kirasturik.  
 Nigar begi bapederak bere aldiaz oroiturik,  
 neork ere izanen eztu ni[k] eztudan partidurik.  
 Ene anima duzuen gomendatu garitatez mobiturik,  
 zarraizkidate gero bertan itzok ongi notaturik:  
 Josafate[n] baturen gara judizion elkarreki;  
 bitarteo lo dagigun, bakea dela guzieki.

**GAURKO EUSKARA  
ESTANDARREAN**

Hemen natza ehortzirik, noizbait gozo eritzirik,  
 Herioak uste gabe dolozki egotzirik,  
 ene anima Jangoikoagana beldurrekin partiturik,  
 lagun gabe bide luzean peril asko pasaturik,  
 onak eta honrak bertan munduak edekirik,  
 plazerak azkeneraino atsekabe bihurturik.  
 Ahaideak eta adiskideak, arte gutxiz atzendurik,  
 ikusten ditut itsusirik, harretxe guztia deseginik,  
 argi gabe ilunbetan, ustel eta kirasturik.  
 Negar begi bat bederak bere aldiaz oroiturik,  
 nehorik ere izanen ez du nik ez dudan partidurik,  
 Ene anima gomenda ezazue garitatez mobiturik,  
 zarraizkidate gero bertan hitz hauek ongi notaturik:  
 Josafaten baturen gara Judizion elkarrekin;  
 bitartean lo dagigun, bakea izan dadila guztiekin.


**GAZTELANIAZKO  
ITZULPEN A**

Aquí yazgo enterrado, lo cual alguna vez consideré dulzura, derribado inesperada y dolorosamente por la muerte me dirijo temeroso hacia Dios. En el largo camino he pasado muchos peligros sin tener compañía, habiendome arrebatado el mundo tempranamente los bienes y los honores, convertidos hasta el final los placeres en amargura. Los parientes y amigos, que por poco tiempo lo fueron, habiendo destruído toda la casa solar, los veo abominables, sin luz en las tinieblas, putrefactos y nauseabundos. Llore cada cual recordando su tiempo, nadie habrá tenido contrariedades que yo no haya conocido. Encomendad mi alma movidos de caridad. Hacedme caso al punto atendiendo bien estas palabras: En Josafat nos hemos de juntar todos el día del Juicio Final. Mientras tanto durmamos, que la paz sea con todos.

Veinte y nuebe de noviembre de mil y  
 tres y sesenta y quatro y quatro en sembla  
 que son sesenta y ocho mandada el dicho  
 que ninguno fue obligado de llevar y forzar  
 las manos por que sabiendo que no  
 se

Hemen para occirre noy pite gozo offic  
 ric rroac fustigabi de los que se duffig  
 gna a rima gozo y esagoria del duffigui dacti  
 turis  
 laquingabe bide ludean perit asco pasaturic  
 lantae sta horrac lortan muduae rila quetic  
 rle pene arguens as cabu lurturic  
 haz deac ofta adis quideac artes quiter acuduric  
 y castaboy biffiff / avocci quidides rymic  
 rorci rre / lunt litan lurtel sta quirestun  
 mique beci sapeducea bice afdio oforturic  
 m ad cure hfanon rfu m oftudam pntiduric  
 que anima lucien gomenatui paritatis moit turia  
 ofiffi quidate pice lortan yec onymoturic  
 gora fote baturic garia pedituric lunt rre p  
 lortan lora adayi quia bayua dela fuffigui que







## BIBLIOGRAFIA

- ALTUNA, Patxi: *Etxepareren hiztegia*, Bilbo, 1979.
- ALTUNA, Patxi: *Haizeak ez eramango!*, Deustuko Unibersitatea, Bilbo, 2002.
- ARESTI, Gabriel: “Léxico empleado por Leizarraga de Briscous”, *FLV*, nº 13, 1973, págs. 61-128.
- BERIAYN, Juan de: *Tratado de cómo se ha de oyr missa*, 1621 [facsimile, Hordago, Donostia, 1980].
- GOMEZ, Rikardo: *Euskal Filologiaren hastapenak*. 2004/05 ikasurtearen material didaktikoa. EHU, Gasteiz, 2004,
- IRIGARAY, Angel: “Sobre la elegía vasca de 1564”, *BAP*, nº 19, 1963, págs. 217-219.
- IRIGARAY, Angel: “Una elegía euskérica del siglo XVI”, in A. Apat-Echebarne, *Una geografía diacrónica del euskara en Navarra*, Ediciones y Libros, Pamplona, 1974, págs.107-108.
- JIMENO JURIO, José María: “Juan de Amendux, poeta euskaldun de Pamplona (c. 1540-1580)”, *FLV*, nº 71, 1996 , págs. 99-117.
- KLASIKOEN GORDAILUA, [www.armiarma.com/klasikoak](http://www.armiarma.com/klasikoak), 2005.
- LETAMENDIA, Jose Antonio: “Leizarragak partitiboz dakartzan partizipioak Duvoisinen ordainekin alderaturik”, *Euskera*, nº 25:2, 1980, págs. 455-482.
- MITXELENA, Koldo: “Elegía de Juan de Amendux (1564)”, in *Textos arcaicos vascos*, Minotauro, Madrid, 1964, págs. 107-110.
- MITXELENA, Koldo: *Historia de la literatura vasca*, Donostia, 2001, [1960<sup>1</sup>].
- MONTEANO, Peio J.: “Iparraldeko nafarrak Tuteran XVI. mendean”, *Euskera*, nº 47:2, 2002, págs. 905-908.
- ORPUSTAN, Jean-Baptiste: *Oihenarten hiztegia*, Izpegi, Baigorri, 1993,
- ORPUSTAN, Jean-Baptiste: *Basque et français. Méthode abrégée de traduction. Navarro-labourdin classique*, Izpegi, Baigorri, 1997.
- ORTA RUBIO, Esteban: “La Ribera Navarra bajo los Austrias”, *PV*, nº 166/167, 1982, págs. 723-867.
- SALABERRI, Patxi: “Amenduxen olerkiaz. Oharrak”, *FLV*, nº 28:71, 1996, págs 87-97.
- SATRUSTEGUI, José María: “Hallazgo de una elegía vasca del año 1564”, *BAP*, nº 19:1, 1963, págs. 63-85. [Artikulu honen azken orrialdean Aingeru Irigarayren ohar labur bat dator].
- SATRUSTEGUI, José María: “La elegía vasca de Juan de Amendux (1564)”, *FLV*, 19, 1975, págs 75-85.

URKIZU, Patri (zuz.): *Historia de la literatura vasca*, Madrid, 2000,.

VILLASANTE, Luis: *Axular-en hiztegia*, Jakin, Oinati, 1973,

VILLASANTE, Luis: “La aportación navarra a la literatura vasca”, *FLV*, nº 24, 1976, págs. 405-417.

ZAPATERO, Félix: *Monografía de la villa de Valtierra*, Aramburu, Pamplona, 1935.

ZUAZO, Koldo: *Euskalkiak. Herriaren lekukoak*, Donostia, Elkar, 2003.